

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

53/2020 Mozioa, uztailaren 17koa, Vitoria-Gasteizetik abiadura handiko konexioa bizkortzeko beharrari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko uztailaren 17an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

53/2020 Mozioa, uztailaren 17koa, Vitoria-Gasteizetik abiadura handiko konexioa bizkortzeko beharrari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Espainiako Gobernuari eskatzen diote bizkortu ditzala Burgos eta Vitoria-Gasteiz arteko abiadura handiko trenaren zatia exekuzioa eta tarte horrek Euskal Yrekiko konexioa. Halaber, eskatzen diote bermatu dezala behar besteko aurrekontu-finantzazioa ematen duela lanetarako, hala aurreikusitako egutegia bete ahal izate aldera.

2. Arabako Batzar Nagusiek Espainiako Gobernuari eskatzen diote ezen Arabako Lurralde Historikoan abiadura handiko trenaren konexioaren eta Euskal Yrekiko lotunaren proiektuak kontuan izan dezala entitateek eta herritarrek aurkeztutako alegazioak, bereziki ingurumenean, gizartean eta nekazaritzan eragin ditzakeen kalteak ahalik eta gehien gutxitzea ahalbidetzen dutenak.

3. Arabako Batzar Nagusiek Espainiako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete lanean jarrai dezatela Arabako Lurralde Historikoan Kantauri-Mediterraneo trenbide-korridorearen konexioa burutzeko akordioan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 17a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA